

Ingurumen-Inpaktuaren Adierazpena (21/2013 Legearen 34.2 art.)

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezko txosten erabakigarria izango da, eta, ingurumen-ondorioei dagokienez, proiektua gauzatzea egokia den ala ez erabakiko du. Halaber, egitekotan, zer baldintzatan egin daitekeen, zer neurri zuzentzaile beharko diren eta zer konpentsazio-neurri hartuko diren erabakiko du. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak izango ditu, gutxienez, honako eduki hauek:

- a) Proiektuaren sustatzailearen eta organo substantiboaren identifikazioa, eta proiektuaren deskribapena.
- b) Informazio publikoaren izapidearen emaitzak, eta eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten emaitzak, laburbilduta, eta nola hartu diren kontuan adierazita.
- c) Ingurumen-organoak egindako azterketa teknikoaren laburpena.
- d) Ezarri beharreko baldintzak, eta ingurumenean eragiten diren ondorio kaltegarrien prebentzioa, zuzenketa, eta, hala badagokie, konpentsazioa bideratuko duten neurriak, egoki izanez gero.
- e) Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoak, 45. artikuluan adierazitako egoeran ezarri beharreko konpentsazio-neurriak.
- f) Ingurumena behatzeko programa.
- g) Egoki izanez gero, jarraipen-batzorde bat sortzea.
- h) Aldian behingo eragiketak izanez gero, erabakiaren zioak eta hamargarren xedapen gehigarrian azaldutako epea.